

Salam, agur

Fermin MUGURUZA / Kantaria

Duela zazpi urte martxan jarri genuen proiektuaren berri emateko "Argia"n osatzen nuen «Hau ez da gezurra» zutabea hautatu bagenuen. amaieraren iragarpena «Nire Txanda»-ri egokitzea erabaki dugu. Hirukote bezala sortu genuen egitasmoa. laster boskote bihurtu eta handik gutxira kolektibo ireki baten motor bilakatu zen. non musika, hitz eta errealtatearekiko konpromezua, ahalik eta koherentzia handienarekin batzen saiatu baikin. Negu Gorriak taldearen independentziak autogestioaz funtzionatzea exijitzen zigunez gero, azpiegiturak sortu behar genituela ohartu ginen. «Itzul gaitezen ekintzara», «ekin diezaiogun lanari» eta horrelako aldarrikapen beroekin hasi zena, denboraren poderioz errotu eta sendotu egin da. Esan Ozenki disketeak bosgarren urtemuga bete du dagoeneko, 23 talde ekoiztu dituelarik, ajitazio eta propagandarako eratu ziren NG brigadak autoantolatatu eta egituratu dira, bidegabekeria salatzeke talde eraginkorrrak direla egiaztatuz, eremu artistiko guztiak erreaktibatzeko egin diren ahaleginekin batera topaguneak hedatu dira taldearen inguruan, non antzerkia, irudia, komikia, bideoa, zinea, olerkia, etabarrekoak kausitu baitira.



Rock internazionalari ere beste lagunekin batera ekin genion, ideien kontrabandoan aritzen garen mugalariok armiarma sareak eraikiz eta utopiarantz mugiarazten gaituen ideia zabalduz. Gaur, ordea, elur izoztuen artean pitzadurak eragiten dituen itsasontziaren brankatik mugitzeke ordua heldu dela erabaki dugu, tripulazioak okupatzen dituen beste tokietan iharduteko, gizakiak gizakiaren zama aroarekin bukatzeko eta inoren eta ezeren menpeko izan gabe bizitzeko indarrak ezin baitira inoiz desagertu, eradaltu baizik.

Taldearen aurkezpena disko batekin gauzatu bagenuen, zikloaren amaierari disko bat atxikitzen zaio, egun hauetan grabatzen ari garena. Geure bizitzaren B.S.O.ren 15 kantu bertsiotanuz, "Salam, agur" izeneko lana kaleratuko dugu, zazpi urtez gure bizitza bete duen bandari adio esateko eta kaixo batez agurtzeko sortu eta sortuko diren proiektu berriak.

SALAM, AGUR

Si hace siete años elegimos la columna que componía en el semanario Argia, denominada "Hau ez da gezurra" (Esto no es mentira), para advertir la puesta en marcha del nuevo grupo musical, el anuncio de su conclusión hemos decidido que se haga público en la tribuna de opinión que me ofrece el diario Egin, bajo la denominación "Nire txanda" (Mi turno).

El proyecto que creamos en su inicio como trío, pronto se convirtió en quinteto y en breve en el motor de un colectivo abierto y multidisciplinario, donde intentábamos conjugar con la mayor coherencia posible la música, la palabra y el compromiso con la realidad. La independencia de Negu Gorriak nos exijía que utilizáramos la autogestión como único modo de funcionamiento para lo cual era preciso que nos dotáramos de infraestructuras para fortalecer nuestra capacidad de decisión. Lo que comenzó como consecuencia de unas ardientes proclamas del estilo "volvamos a la acción", "construyamos nuestro futuro", con el tiempo se ha arraigado y fortalecido. La discográfica Esan Ozenki acaba de cumplir su quinto aniversario, habiendo producido a 23 grupos, las brigadas NG, que se formaron para realizar acciones imaginativas de agitación y propaganda, se han autoorganizado y estructurado, confirmando su operatividad en la denuncia de la injusticia. Junto a los esfuerzos por reactivar todos los campos artísticos, se han desplegado los puntos de encuentro alrededor del grupo, donde se han dado cita el teatro, la imagen, el vídeo, el cine, la poesía, el cómic, etc. También avivamos junto a otros compañeros lo que llamamos la "internacional del rock", donde los que ayudamos a atravesar las fronteras clandestinamente haciendo contrabando de pensamientos, construimos la red o tela de araña y difundimos la idea que nos ayuda a avanzar hacia la utopía. Hoy, sin embargo, decidimos movernos de la proa de la embarcación que provoca grietas entre los icebergs, hacia otros puntos que ocupa la tripulación, ya que las energías que utilizamos para acabar con la era de la explotación del hombre por el hombre y para vivir libres sin estar subordinados a nada ni a nadie, nunca desaparecen, sólo se transforman.

Si la presentación del grupo se llevó a cabo con un disco, el final de este ciclo se cierra de la misma manera. Versioneando 15 canciones que conforman parte de la Banda Sonora Original de nuestras vidas, publicaremos "Salam, agur", despidiendo de esta manera a la banda que durante siete años ha marcado nuestra existencia y saludando los nuevos proyectos que hayan surgido o emerjan en el futuro.